

BEGIAK ITXI BAINO EZ NITUEN EGIN

Sofan etzan naiz, lanetik bueltatu ondoren egin dudan lehenengo gauza. Nekatuta nago. Aitor eta Nerea berriz eztabaidatzen. Mikelen kezka aurpegiak berriro arazoren batean sartu dela esaten dit. Afaria egin behar dut, zurgagailua pasa, iturginari deitu, komuneko papera erosi, Mikelen akademia ordaindu, Nerearen logelako argia konpondu. 5 minutuko lo kuluxka bat besterik ez dut egingo.

Gezurra dirudi orain dela 6 urte ikastolara eramaten nituela; kotxeko musika beraien oihuak ziren.

-- Aaaaa, Nereak jo nau.

-- Aaaaa, Aitorrek gerrikoa estutu dit.

--Aaaaa, Mikelek ez dit kasurik egiten.

Isiltasuna beraiekin ez zen existitzen. Batzuetan nire kantarik gustokoenak ziren, eta beste batzuetan ez zegoen horrelako energia, oihu eta kexak jasan zitzakeen pertsonarik.

Nerea eta Aitorren institutuko lehenengo eguna zen. Kotxetik ateratzean ez agur, ez "maite zaitut" ez nuen entzun. Lehen, nire ondotik joateko ez ziren gai eta orain, zenbat eta urrunago, hobeto. Hamaiketakoa kotxean ahaztu zuten eta berandu izan baino lehen euren atzetik korrika joan nintzen, baina sartu egin ziren jendez gainezka zeuden pasilloetatik barrena, galdu egin nituen.

Sofan etzan naiz, lanetik bueltatu ondoren egin dudan lehenengo gauza. Hainbeste gauza egin behar ditut, 5 minutuko siestatxo bat besterik ez dut egingo.

Gezurra dirudi orain dela 6 urte institutuko sarreran kotxetik ateratzen ikusi nituenean. Jende artean galdu nituenean. 5 minutuko siestatxo bat besterik ez nuen egin, baina konturatu orduko gauzak aldatu dira. Jubilazioak siestatxoak emateko nahi beste aukera ematen dizkit orain. Baina etxean zerbait falta da, hobeto esanda, norbait falta da. Nire seme-alaben arrastorik ez dago etxean. Bakoitzak bere bidea egin du. Nerea enpresa bateko buruzagia da, Mikel Heziketa Fisikoko irakasle lanetan dabil eta Aitor Alemaniako injenieritza proiektu batean.

Isiltasuna dago etxean, agian hori zen lehen nahi nuena, isiltasun pixka bat, denbora libre pixka bat, baina hau ez da orain nahi dudana. Pozik nago euren bidea aurkitu dutelako, baina siestatxo gehiegi egin ditudala kontura naiz. Mikel, Nerea eta Aitor bistatik galdu ditut, jendez gainezka zeuden pasilloetatik barrena.

Ane España 1.5